

Donostian, 2020ko abenduaren 11n

Guraso agurgarriak,

Gaur egun bizi dugun egoera eta une honetan dugun informazioa kontuan izanik, aurten ezingo gara auzora atera urtero ospatzen ditugun jaiak ospatzera, baina euskal kulturarekin dugun konpromisoari eutsiz, beste modu batera bada ere Gabonak, Danborrada, Kaldereroak eta Euskal Inauteriak ospatzen jarraituko dugu. Ikastola barruan egingo ditugu festa hauek, eta, tamalez, **gurasoek ezingo duzue parte hartu eta ezingo zarete ospakizunak ikustera etorri**, baina emango dizuegu egingo dugunaren berri. Ospakizun guztiak taldeka eta Covid 19aren aurkako prebentzio-neurriak errespetatuz egingo ditugu.

### **GABONAK**

Aurten, abenduaren 24an ezingo gara Groseko kaleetan zehar Olentzerorekin kantuan ibili, baina ospakizuna abenduaren 18an egingo dugu Ikastola barruan. Horretarako, ikasle guztiei baserritarrez jantzita etortzeko deia egiten diegu; izan ere, egun horretan bertan abestuko baititugu Olentzerorekin abestu ohi ditugun abestiak.

### **DANBORRADA**

San Sebastian egunean ez da Haur Danborradarik izango, eta urtarrilaren 19an ere ezingo dugu Hurran edo Manteon egin ohi dugun guztion arteko danborrada ospatu. Hala ere, egun horretan bertan (urtarrilaren 19an), danborrada txikiagoak egingo ditugu, eta, beraz, ohiko jantziarekin etortzeko deia egin nahi diegu ikasleei (mantala, zapia eta alkandora edo jertse zuriak eta galtza urdinak).

### **KALDEREROAK**

Kaldereroen konpartsak ere ezingo ditu Groseko kaleak hartu aurten, baina taldeka abestu eta dantzatuko ditugu Hungariako abestiak otsailaren 5ean. Hortaz, Kaldereroetako ohiko jantziarekin etortzeko deia egin nahi diegu ikasleei.



## INAUTERIAK

Inauteri bereziak izango dira aurtengoak, ezingo baikara auzoko kaleetara atera, baina Euskal Inauteriak ospatzearen garrantzia nabarmendu nahi dugu, eta horretarako, otsailaren 12an (ostirala) gure inauterietako ospakizuna egingo dugu Ikastolan. Badakigu mozorroak sortzea ez dela lan erraza izaten, eta aurten ospakizuna txikiagoa izango denez, maila guztietako ikasleak Txorimaloz janztea erabaki dugu, lana errazte aldera. Horrez gain, otsailaren 11n (osteguna) ikasleek norberak aukeratutako mozorro librearekin etortzeko aukera izango dute.



Datorren astean izango dugu, beraz, lehenengo jaialdia, eta gainerako datak gerturatu ahala emango dizuegu informazio gehiago.

Besterik gabe,

ZUZENDARITZA

Donostia, 11 de diciembre de 2020

Estimadas familias,

Teniendo en cuenta la situación actual y la información de la que disponemos en estos momentos, este año no podremos salir al barrio a celebrar las fiestas que celebramos todos los años, pero manteniendo nuestro compromiso con la cultura vasca, aunque sea de otra manera seguiremos celebrando la Navidad, la Tamborrada, los Caldereros y el Carnaval Vasco. Haremos estas fiestas dentro de la ikastola y, lamentablemente, las familias no podréis participar y no podréis venir a ver las celebraciones, pero os informaremos de lo que hagamos. Todas las celebraciones se realizarán en grupos y respetando las medidas preventivas contra el Covid 19.

#### **NAVIDAD**

Este año, el 24 de diciembre no podremos cantar con el Olentzero por las calles de Gros, pero la celebración se celebrará el 18 de diciembre en el interior de la Ikastola. Para ello, animamos a todos los alumnos a que vengan vestidos de baserritarras, ya que ese mismo día cantaremos las canciones que solemos cantar con el Olentzero.

#### **TAMBORRADA**

El día de San Sebastián no habrá Tamborrada Infantil y el 19 de enero tampoco podremos celebrar la Tamborrada entre todos los que solemos hacerlo en Hurra o Manteo. No obstante, ese mismo día (19 de enero), realizaremos tamborradas más pequeñas, por lo que queremos hacer un llamamiento al alumnado para que acudan con su traje habitual (delantal, pañuelo y camisa o jersey blancos y pantalón azul).


#### **CALDEREROS**

La comparsa de caldereros tampoco podrá tomar las calles de Gros este año, pero cantaremos y bailaremos por grupos las canciones húngaras el 5 de febrero. Por lo tanto, queremos hacer un llamamiento al alumnado para que vengan con el traje habitual de los caldereros.



## CARNAVALES

Los carnavales de este año serán especiales, ya que no podremos salir a las calles del barrio, pero queremos destacar la importancia de celebrar el Carnaval Vasco, y para ello, el viernes 12 de febrero celebraremos nuestra celebración de carnaval en la Ikastola. Sabemos que crear los disfraces no suele ser tarea fácil y como este año la celebración será menor, hemos decidido vestir de Txorimalos al alumnado de todos los niveles para facilitar el trabajo. Además, el jueves 11 de febrero los alumnos podrán acudir con el disfraz libre de su elección.



La semana que viene, por tanto, tendremos la primera fiesta, y os haremos llegar más información en cuanto se vayan acercando las demás fechas.

Sin otro particular,

EL EQUIPO DIRECTIVO